

Mendeurreneko Adierazpena

Erronkari erantzungo diogu!

NAZIO BATZORDEA

Bere mendeurrena dela-eta, ELAk, Euskal Langileen Alkartasunak, berretsi egiten du Euskal Herriko langile guztiak biltzeko, defenditzeko eta beren helburuak lortzeko konpromisoa, oinarritzat justizia eta askatasun balioak hartzen dituelarik. Balio hauek ez dira aipamen abstraktu hutsa; aitzitik, langile diren milaka emakume eta gizonen borroka solidarioa bultzatzen dute, beren lan-baldintzak hobetzeko eta gizarte zuzenago baten aldeko lehian.

1. GURE KLASE-KONPROMISOA

Alde anitzeko krisi bat bizi denean -ekologikoa, elikagaiena, demografikoa, ekonomikoa, politikoa, demokratikoa...- ELAk adierazten du sistema kapitalistak, zeina etekin azkar eta esklusiboan oinarrituta baitago, arau bihurtu duela lan-munduaren esplotazioa, herrien zapalkuntza eta biziaren beraren zein planetako baliabideen suntsipena. Horregatik, Printzipioen Adierazpenak (1976) dioen legez, ELAk "gizaki eta herri libreen alde" egiten du, eta hau sozialismo batean gauzatuko litzateke, zeinak bere kezken eta ekintza politikoaren erdigunean pertsona konkretua eta beronen inguru sozial zein ekologikoa kokatzen duen.

Nazioarteko eta tokiko testuinguruan erabateko indar desoreka dago kapitalaren -produktibo eta finantzieroa dela ere- eta lan-munduaren artean. Langabezia, segurtasun eta babes sozial eza, prekariedade laborala, zaintzaren krisia eta ugaltze lanaren ikusezintasuna, pobrezia eta baztertze soziala, negozioak kolektiboko xantaiak edota enplegua galtzeko beldurra... ditugu politika neoliberalen egungo hegemoniaren eragin zuzen eta latzenetakoak. Hau botere politikoek botere ekonomikoekiko duten menpekotasun gero eta handiagoak egiten du posible, hein handian, uko egiten baitiote nolabaiteko oreka lortzeko helburuari.

Haustura sozial hauek haustura demokratikoekin batera gertatzen dira. Batetik, herritar guztientzako bermatuta dauden minimo ekonomiko, sozial eta kulturalik gabe ezin baita funtsezko berdintasuna lortu, zeinak sistema demokratikoaren oinarri izan behar baitu. Bestetik, oinarritzko askatasunak (manifestazioa, greba, negozioak kolektiboak...) eta ekintza errebindikatiboak egikaritzea galarazteko gero eta errepresio handiagoa eragiten

da. Halaber, instituzioek antolakunde sozial aldarrikatzaileei eragotzi egiten diete publiko beharko lukeen informazioa lortzeko aukera, eta herritarren parte hartzea indarretzen da. ELAren ustez, neoliberalismoaren alternatiba ere bada eskubide eta sozialak eta guztion askatasun politikoak aldarrikatzea.

Horrenbestez, ELAk uko egiten dio gizarte-itunaren ideologiari, zeinak berezko helburu bihurtu baitu kontzertazioa. Helburu sindikalik oinarritzkoenak baztertu ahala -aberastasunaren banaketa edota gizarte-gatazka- kontzertazioa gero eta hutsalagoa bilakatzen da, eta azkenean politika antisozialak onesten ditu. Ideologia hori errefusatzearen ondorioz, gure herriko egoera konkretuan, ELAk erabaki du parte-hartze soziolaboraleko erakundeetan zeukan presentzia etetea edota EAEko gizarte-elkarrizketan parte ez hartzea. Erabakiok esanahi politiko, instituzional eta sindikal sakona dute. ELAren irudiko, gaur egun lan- eta bizi-baldintzen aurrerapidea ez da gure herrian gizarte-kontzertazioaren ondorioz etorriko.

Sindikatuaren kontzertazioarekiko jarrera kritiko hau bere autonomia beteak -besteak beste politika eta finantziarioari dagokionez- egin du posible. Hori dela-eta, ELAk zoriondu egin nahi ditu III Kongresuaren ostean (1976) sindikatu historikoa erakunde independente, autonomo eta burujabe gisa berrerraztea posible egin zuten militanteak. Pertsona haien ekarpena, ilusioz eta konpromisoz betea, erabakigarria izan da mendeurren honetara egungo baldintzetan iritsi ahal izateko.

Aipatutako oinarri sindikalekiko leialtasunez, ELAk premiazko ikusten du, XXI. mendearen hastapenetan, bere oinarri-antolakundeak indartzeari lehentasuna ematea. Antolakundeok ematen diote, hain zuzen, batik bat sindikatuari zilegitasuna, beste eragile batzuk -politiko, patronal zein instituzional- baino areago. Hortaz, une honetan sindikatuaren antolakundearen eta militanteen helburu nagusia gure indarlerazioa lantoki bakoitzetik abiatuta hobetzea da. Bai baitakigu ez dela lorpen sindikalik izango botere sindikala gehitzeko etengabeko lehiarik gabe.

Sortu zela ehun urte betetzen direlarik, ELAk aldarrikatzen du sindikatua dela langileen lan- eta bizi-baldintzen aldeko borrokarako tresnarik behinen eta egokiena, gizarte zuzenago baterako bidean. Hori dela-eta, bere Printzipioen Adierazpenak dioen legez, irekita dago Euskal Herriko langile orori, edozein dela ere bere jatorria, sinesmena, pentsamoldea edo joera politikoa. Bere zilegitasuna oinarrian bilatzen duenez, ELAk eutsi egiten dio bere konpromiso demokratikoari, afiliatuek gero eta parte hartze handiagoa izan dezaten programa, proposamen eta ekintzak eztabaidatu eta erabakitzerakoan, bai kon-

federazioari, bai bere lanbide- zein lurralde-antolakundeak dagokienez.

Borroka sindikalaren testuinguruan, ELAk berretsi egiten du langileen batasuna eragozten duten oztopoak gainditzeko konpromisoa. Nolanahi ere, aliantza sindikal eta sozial politika ororen funtsezko gakoa, sine qua non baldintza, bakarra da, langileklasearen interes konkretuen defentsa zorrotza. Horregatik, ELAk deitoratu eta arbuatu egiten ditu sarri egiten diren batasunerako deiak, lan-munduari errealitate gatazkatsua ahazten duen lañotasunetik botatzen baitira, edota are mundu sindikala beste interes -ekonomiko edo politiko- batzuren menpe jartzetik, langileenak ez diren interesak. ELArentzat, lan-munduari helburu eta nahiak ez dira, eta ezin dira izan, esparru sindikaletik at erabakitzeko kontu instrumentalak.

ELAren irudiko, gehiengo sindikaleko lankidetzara iraunkorrak berebiziko eremua irekitzen du, aukera sindikal, sozial eta politiko ugari eskaintzen duena. Eta egunetik egunera sortzen diren zailtasunak gorabehera -antolakuntzako ahalegina medio gainditu behar direnak-, sindikatuak oso ongi deritze 2009 hasieratik hona egin diren urratsei. Horregatik, eskubide laboral eta sozialak eraso latzak jasaten ari diren honetan, ELAk zinezko konpromisoa adierazten du lankidetzara horrekiko, eta berau etorkizunean hedatzea eta sakontzea nahi du.

2. GURE KONPROMISO ABERTZALEA

Aipatu den gure proiektuaren autonomia eta independentziak eraman zuen ELA estatutismoa eta beronen paralelo neoforalista berrikusi eta behin betiko baztertzera. Espainiar estatuak esparru politiko hau aldebakarretik hondatu eta murriztu du. Gobernu espainiarrek, egitate nazionala aitortzeko inondik ere gauza ez izanik, orain, salgai gisa erabiltzen dute krisi ekonomiko eta sozial betean, botere ekonomikoari komeni zaizkion estatu-politikak gauzatzeko behar duten babes parlamentarioa lortzeren.

Bi kontuk argi asko adierazten dute esparru honek Hego Euskal Herriko langileentzako zenbaterainoko gabeziak dituen. Hor dago, batetik, estatuan eskubide laboral eta sozialak murrizteko prozesu etengabea (erreforma laboralak, negoziazio kolektiboa, pentsioen erreforma, langabezia-prestazioak). Bestetik, enplegu-politikak, EAera erabakitzeko ahalmenik gabe transferitu baitira, betiere Madrilan erabakitako politika usteleki zintzo-zintzo jarraitzeko baldintzapean.

Estatutuen erreferentziak Euskal Herrian ez dauka atxikipen handirik, eta are gutxiago autogobernuari

dagokionez behar besteko kemen politikorik, zenbait euskal indar politikok -estatuarekiko eta herriarekiko- ikur politiko gisa erabiliagatik ere.

Horrenbestez, ELAk premiazko ikusten du subiranien alde egiten duten indarrek gutxieneko eduki batzuk zehaztea eta lankidetzarako irizpide batzuk adostea, gure herriaren askatasun beterantz aurrera egiteko baliagarri izango direnak. Ziurrenik, lankidetzarako borondatea zinezkoa den neurtzeko modurik argiena dinamika horretan eragileak biltzeko gaitasuna eta inor ez baztertzeko konpromisoa izango dira. Bide zibil eta demokratiko hutsetatik joaz gizar-tean gero eta atxikipen handiagoa erakarri behar da; proiektu bakoitzak bere esparruan benetako oinarri militante bati ilusioa eman behar dio, honek gizarte-an helburu horien alde lan egin dezan.

Hurbiltzeko dinamika honetan aurrera egiten bada, ELAk ez du, haatik, prozesu honetan bere-berea duela uste duen ekarpena, hots, auzi sindikal eta soziala, bigarren mailan kokatuko, sinetsita baitago politika neoliberalak gehiengoaren interesen kontra-koak direla eta prozesu subiranista batek behar duen herritar atxikipena gutxitzen dutela.

Halaber, borroka nazionalaren baitan, ELAk aintzat hartzen du egitate berri eta funtsezko bat: Euskal indar politiko batek ere ez duela bere egiten erreferentzia armatua borroka politikorako tresna gisa. Hain zuzen, ELAk estatu espainol eta frantsesari dei egiten die balia ditzatela bakerako aukerak: batetik ETAK luzatutako su-etena eta nazioarteko egiazta-pen proposamena, eta bestetik, prozesu hau laguntzeko hainbat nazioarteko eragilek adierazi duen prestutasuna. Joan den Aberri Egunez esan zuen legez, ELAk elkarrizketa eta negoziazio prozesu bat aldarrikatzen du; honek "alde desberdinei bide egingarriak eskaini behar dizkie, bakezko behin betiko agertoki bat finkatzearren". Bortizkeria behin betiko desagertu behar da; baita estatuarena ere, bere adierazpide desberdinetan: espetxe-politika ankerra, torturaren iraupena, erakundeen ilegalizazioa edo gure inguruko demokrazietan parerik ez duten auzibideak.

3. AGENDA ZABALAGOA

MEDE BERRI BATERAKO

Egungo krisiaren kudeaketa neoliberalak, langileklasearen aurkako erreforma eta eskubide murrizketetan oinarrituta dagoenak, berretsi egiten du neoliberalismoaren definizioa: "kolektiboen suntsipen metodikorako egitasmoa" (Bourdieu). Beraz, ELAk uste du mugimendu sindikalak egin behar duen eztabaidarik urgente eta beharrezkoena antolakuntzari buruzkoa dela. Kontua hobeto lan egitea eta defen-

tza kolektiboan eragingarriagoak izatea da, horrela sindikalismoak XXI. mendeko langile-klasearentzat erabilgarri izaten jarrai ahal dezan. Honetarako premia handiagoa da, inondik ere, estatuan erabaki den negoziazio kolektiboaren erreforma ostean, beronen xede nagusia langileen defentsa kolektiboko tresna nagusia, hitzarmen kolektiboa, ahultzea baita.

Antolakuntzari buruzko eztabaidarekin batera, Aberri Egunez esan genuen bezala, aintzat hartu behar ditugu gure herriko borroka sozialak eta dinamika militanteak, eta "oro har gure sindikatuak bezala botereei men egiteari uko egiten dioten pertsona eta talde horien lana. Hots, gizarte justuago baten alde lanean diharduen militantzia ohoratu", hainbat esparrutan, esaterako ingurumena suntsitzen duten azpiegituren kontrako lana, elikagaien subiranotasunaren aldekoa, pobreziaren aurkako borroka, gizon eta emakumeen arteko zinezko berdintasuna lortzeko borroka, etxebizitza eskubidearen aldeko lehia, euskararen normalizazio betearen aldeko apustua, immigranteen defentsa eta arrazismo eta xenofobiaren aurkako borroka, herrien arteko elkartasuna, memoriaren berreskurapena nahiz giza-eskubide zibil eta politikoen sustapena... Konfederazioak bere burua kide gisa ikusten du eta borroka horiekin guztiekin konprometituta dago.

Horiekin batera, ingurumenaren auziak, oro ,har eta batik bat klimaren aldaketak sindikatuaren agendan leku nabarmenagoa izan beharko du. Datozen hamarkadetan planetaren suntsipena eta merkantilizazio areagotua geldiarazteko borroka garrantzi historikoa hartuko du, bere garaian langile-mugimenduen sorrerak lan-munduen esplotazioa muga-tzeko izan zuen antzeko garrantzia. Horregatik, aberastasunaren banaketari buruzko ezinbesteko eztabaidarekin batera sindikatuak bere egin beharko ditu hainbat galdera: zer, nola eta zertarako ekoizten den, zer eta nola kontsumitzen den... ELA eta borroka hori bat datoz funtsezko oinarri batean: jarduera ekonomikoaren helburu izan behar da pertsona guztien ongizatea, alde guztietatik begiratuta (fisiko, psikologiko, laboral, sozial... baita ingurumenetik ere).

Ehun urte igarota, ELAk sorrerako egitasmoari eusten dio: gure sindikatuan Euskal Herrian bizi eta lan egiten dutenak antolatzea. ELAk pozez ikusten du gaur ere esparru erakargarria dela gizarte zuzenago eta nazio burujabe baten alde lan egiteko.

Ehun urte igarota, ELAk kultura sindikala aldarrikatzen du, sistema kapitalistak esplotatutako milaka milioi langileen defentsa eta sustapenaren aldeko

hautua egitea. Ondorioz, euskal langile-klasea defenditzen jarraitzeko konpromisoa berresten du.

Badakigu gaur, duela mende bete bezala, langile-klasea antolatzeko izugarritzko zailtasunak daudela. Baina egia da ere gure sindikatuak ez duela inoiz bere asmoa gauzatzeko une egokirik ezagutu. ELAK uste du oraingoa ere une aproposa izan daitekeela bere oinarri soziala zabaltzeko, joera militantea inda-

ratzeko, koadroak prestatzeko, lantoki, sektore eta eskualde bakoitzeko borroka kolektibora pertsonak biltzeko... Hauexek dira gure sindikatuarentzako etengabeko erronkak; izan ere, aldaketak aldaketa eta urteen joan-etorria gorabehera, euskal langile-klasearen alde gizartea eraldatzeko eta eragin politikoa izateko borondate argia baitauka. Erronkari erantzungo diogu

IV

Printzipio Adierazpena - 1976

Euzko Langilleen Alkartasuna Euzkadiko langilleen Euskal Sindikal Konfederakuntza da. Horregatik, bere helburua Euzkadiko langile guztiak, profesio eta profesioarteko elkarteetan biltzea da, beren eskubide, interesak eta nahiak aldeztu eta lortarazteko.

Etengabeko aldaketetan diharduen eta tenik ekonomi desarroilo maila batetara iritsia den gizarte honetan, E.L.A.-k adierazten du Kapitalist sistema langilegoaren eta herrien askatasun eta aurrerapenaren kontra dagoela. Euzkadi eta Euzkadiko langileak, egituraz inperialista eta nazioz gaidikoa den kapitalismo baten menpean aurkitzen dira, zeinek, botere eta erabaki zentroei dago kienez, konzentratuak dagoen produkzio, kontsumo eta kultur sistema bat inposatzen baitu. Berez ezeri jaramonik egin gabe bapateko irabazi pribatuari izan ezik, nahi eta ez morrontza eta zapalkuntza sortarazten du, langileen eta herrien eskubide, nahi eta interesak ukaerazten dituzten estatal formak ezariaz. Ondorioz Euskadiri bere nortasuna ukatzen zaio eta bere langile klasea morrontzapean aurkitzen da.

Euzko Langilleen Alkartasuna Euskal Herriaren zapalkuntzaz eta Euzkadiko langileen morrontzaz jabeturik, Euzkadi osoaren etorkizun librearen eragile nagusienak langileak direla, beharrezkoa ikusten du langile hauk elkartu, eginkizun honen arduraz jabetu eta, Euzkadiko langilegogandik eta Euzkadirentzat pentsatu eta burutu-tako politika bat lantzea.

E.L.A. Euskal sindikal Konfederakuntza denez, euzkadiko langileen errebindikazio guztien defendapena berea egiten du. Horien alde borrokatzeko tresna sindikatoa dela sinisturik, bere sindikalgintza, lan errebindikazioetan eta gizarte bidezko bat lortzeko borrokan oinarritzen du. Kapitalist tresnak inola onartzen ez dituelarik, eta euskal langilegoaren talde kontzientziaren adierazpen bezala, bere buruaren jabe diren gizon eta Herri librearen gizartee baten alde jokatu du: hots, produkzio, kontsumo eta kultur tresnangileen esku eta serbitzuan egonen diren sozialismo batetan burutua izango den gizartea.

Adierazpen honetako printzipio eta helburuen desarroiloak, enpresa eta politik taldeetatik, Estatutik edo sindikatuarekin zer ikusirik ez duen edozein eraginetatik erabateko askatasuna exigitzen du. Sindikal eta politik kargoak batu-ezinak dira, askatasun honen garantia lortzek ezinbestekoa baita. E.L.A.k askatasun osoz zehaztuko ditu bere xedeak, programak eta ekintzak, baita ere bere borroka edo negoziaketa bideak, eta beste erakundeekin ukan ditzakeen harremanak erabaki eginen ditu.

Euzko Langilleen Alkartasuna bere izakeraren zabala eta demokrazi zentzua adieraziz, Euzkadiko langile guztiei zabalik dago, inoren jatorria, sineskera, pentsaera edo politik aukera haintzat hartu gabe, baldin printzipio eta araudi hauk ontzat ematen baditu. Halaber garantiatzen du ardura guztietara iristeko guztien ahalbide berdina, bere programaketa eta ekintzen eratzean sindikatutako guztien parte hartzea eta bertako kideek Konfederakuntzaren bizitzaz eta hazkuntzaz ukan ditzaketen iritzi desberdinen errespetoa.

E.L.A. langile klasearen batasuna lotzeko bidean sortzen diren oztopoak gaitzen ahalengintzen da eta batasun hau sindikal praktika askean Irotu behar delakoa dago. Batasunerako prozesuan, E.L.A.-k beti gordeko die euskal langileen interesei zintzotasun osoa, beraien interesei atxikia baitago.

Gaur eguneko kapitalismoaren nazioz gaidiko estrategia gero eta nabarmenagoa denez gero, langile guztien arteko elkartasuna eta beren erakundearen arteko harreman hertsia goa langile klase ororen beharrezko premia bat da. E.L.A.-ren iritziz, nazioarteko elkartasun hau, nazio bakoitzeko sindikatoen elkarrenganako burujabetasun eta libertate onespenean oinarritu behar da, kidezko problematiketan datzalarik indartuz joanen den elkartasuna.

Euzko Langilleen Alkartasuna, beraz, sindikato bat da, euskal sindikato bat Euzkadiko langile guztientzat, klase sindikato bat, kanpoko inoren baldintzapenik gabea, demokratikoa bere egituretan, batasun zalea bere asmotan eta internazionalista bere praktikan.